


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



MEMORIA GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA

2017/18 ikasturtea

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. UPV/EHUKO GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA	1
2.1. HELBURUAK.....	1
2.2. LANGILEAK.....	1
2.3. HARREMANETARAKO HELBIDEAK ETA KOKALEKUA.....	2
3. 2017/2018 IKASTURTEAN EGINDAKOAK	3
3.1. BESTE ORGANISMO ETA ERAKUNDE BATZUEKIN BATERA GARAPENERAKO LANKIDETZA BULTZATZEKO HITZARMENAK SUSTATZEA 3	
3.2. DIRU LAGUNTZEN DEIALDIAK UNIBERTSITATEAREN LANKIDETZA GARAPENERAKO PROIEKTUETARAKO	5
3.3. GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZARI BURUZKO JARDUNALDI ETA JARDUEREN ANTOLAKUNTZA, UNIBERTSITATEKO KIDEEI ZUZENDUAK.....	7
3.4. ASILO ESKATZAILEEN ESKUBIDEEN ALDEKO JARDUERAK.....	10
SENTSIBILIZAZIOA ETA EZTABAIDA SUSTATZEA	15
3.5. AHOLKULARITZA TEKNIKOA IRAKASLE ETA IKERTZAILEEI, AZPKOEI ETA IKASLE ERAKUNDEEI	18
3.6. UPV/EHUKO IKASLEENTZAKO IKASTARO MONOGRAFIKOAK ANTOLATZEA; ZEHAZKI, GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAREN ARLOKOAK.....	18
3.7. GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO UNIBERTSITATE PRAKTIKAK ETA GRADU AMAIERAKO LANAK (GRAL) EGITEKO PROGRAMA 20	
3.8. SOLIDARITATE EDO LANKIDETZA JARDUERAK.....	25
4. ESKER ONA	33
1. ERANSKINA: IKASLEAK BOLUNTARIO ARITU DIREN ERAKUNDEAK (2017/2018 IKASTURTEA)	35
2. ERANSKINA: BOLUNTARIOTZAREN III. AZOKAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	37
3. ERANSKINA: UPV/EHUREN PRENTSA OHARRAK	39



1. SARRERA

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak bulegoak 2011/2012 ikasturteaz geroztik argitaratzen du bere zeregin nagusien inguruko jardura eta aurrerapenei buruzko memoria bat. Alde batetik, Garapenerako Lankidetzak Unibertsitarioaren (GLU) lotutako prestakuntzari eta unibertsitateko irakaskuntzari lotutako zereginak daude, hala nola curriculumeko praktiken antolakuntza, Gradu Amaierako Lanak (GrAL) eta garapen iraunkorrari eta kooperazioari buruzko monografikoak. Beste alde batetik, GLUaren inguruko ikerketari lotutako funtzioak daude: difusio eta sentsibilizazio lanak ekonomikoki atzeratuen dauden herrialdeetako errealitateen inguruan, bai eta gure gizartean dauden desberdinkerien inguruan ere.

Memoria hau argitaratuta, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak 2017/2018 ikasturtean gauzatutako ekintzen berri emateaz gain, aitortza zehatza egin nahi diegu unibertsitateko kideek UPV/EHU landutako lankidetzak ekimen eta jarduerari: irakasle eta ikertzaileak (IIP), administrazioko eta zerbitzuetako pertsonala (AZP) eta ikertzaileak.

2. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoa, [Iraunkortasuneko Zuzendaritza](#)ri eta [Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzari](#) atxikita dagoena, UPV/EHU 2003an sortutako zerbitzu bat da, garapenerako unibertsitate lankidetza sustatzeko; hau da, unibertsitateko kideek lankidetzaren helburu diren gizarteetako eta euren gizarteko gaitasunak (bereziki goi mailako hezkuntzari dagozkionak) indartzeko egiten duten lan solidarioa sustatzeko.

2.1. HELBURUAK

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoaren asmoa da unibertsitateko kideek garapenerako lankidetzaren arloan egiten duten ahalegina koordinatu, lagundu eta bideratzea.

Oro har, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza bulegoak honako helburu hauek ditu:

- Garapenerako lankidetza eta hezkuntza (GH) unibertsitatearen gizarte eginkizunean txertatzea.
- Unibertsitateko kideen artean elkartasun balio solidario eta unibertsalistetan oinarritutako prestakuntza sustatzea, eta gizarte arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzea, berdintasuna, iraunkortasuna eta giza eskubideen errespetua oinarri hartuta.
- Munduko hainbat lekutan gizakiaren garapena baldintzatzen duten era askotako arazoak ezagutzea, ikertzea eta hedatzea bultzatzea, unibertsitateko kideek kontzientzia handiagoa izan dezaten arazo horien inguruan.
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren zerbitzura jartzea giza baliabide espezializatuak, eta beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera, lankidetzarako proiektu eta programak abian jartzeko lanean parte hartzea.
- Elkartasun aktiboa eta boluntario lana indartzea unibertsitateko kideen artean, ikasleen artean batik bat, eta haien boluntario lana erraztea esparru espezifikoko batean, programa propioak martxan jarriz edo ikasleak beste erakunde batzuetara bideratuz.

2.2. LANGILEAK

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoko taldea osatzen dute zuzendari batek, teknikari bik eta administrazio zereginen arduratzen den pertsona batek.

Izen-deiturak Kargua	Telefonia	Helbide elektronikoa
Estibaliz Sáez de Cámara Oleaga	946018212 946012039 688673775	estibaliz.saezdecamara@ehu.eus



<i>Iraunkortasuneko zuzendaria</i>		
Estibaliz Martínez Villabeitia <i>Kooperazioho teknikaria</i>	946012221	estibaliz.martinez@ehu.eus
Paloma Sanchez Valdivielso <i>Iraunkortasuneko teknikaria</i>	946017933	paloma.sanchez@ehu.eus
Espe Etxeandia Egidazu <i>Administrazio laguntzailea</i>	946012067	espe.etxeandia@ehu.eus

2.3. HARREMANETARAKO HELBIDEAK ETA KOKALEKUA

Harremanetarako helbidea

Posta elektronikoa: oficop@ehu.eus

Kokagunea

Bizkaiko Campusean, UPV/EHUko Leioa-Erandio eremuan, Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultatearen behealdean.



Helbide postala

Garapenerako Lankidetzeta Bulegoa (UPV/EHU)

Sarriena auzoa, zk./g

48940 Leioa (Bizkaia)

Web orria

<https://www.ehu.eus/es/web/oficop/home>

3. 2017/2018 IKASTURTEAN EGINDAKOAK

Helburu horiek lortzeko, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak hainbat jarduerara antolatzen eta/edo koordinatzen ditu zenbait esparrutan. Besteak beste, nabarmentzekoak dira honako hauek: hitzarmenak sustatzea lankidetzaren sustatzeko beste organismo eta erakunde batzuekin elkarlanean; Garapenerako Lankidetzaren Unibertsitarioko (GLU) proiektuetarako diru-laguntzak; Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren (GH) esparruan jardunaldi eta jardueren antolakuntza; asiloa eskatzen duten pertsonen eskubideen aldeko ekintzak; aholkularitza teknikoak IIP, AZP eta ikasle erakundeei garapenerako lankidetzari buruz; ikastaro monografikoak UPV/EHUko ikasleentzat lankidetzaz eta GHz; unibertsitateko praktiken programaren kudeaketa eta Gradu Amaierako Lanak (GrAL) Garapenerako Lankidetzaren esparruan; harreman sustapena eta kudeaketa ikasleen eta boluntariotza erakundearen artean, jarduerara solidarioak eta lankidetzakoak egiteko, eta autokudeatutako boluntariotza proiektuetarako). Ondoren zehazten dira.

3.1. BESTE ORGANISMO ETA ERAKUNDE BATZUEKIN BATERA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN BULTZATZEKO HITZARMENAK SUSTATZEA

Azken urteotan hitzarmenak sinatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) zein kanpoko erakunde eta entitate sozialekin, Garapenerako Lankidetzaren esparruan proiektu eta jarduerak bultzatzeko. Hain zuzen ere, hitzarmen horiei esker, harremanak sendotu dira unibertsitatearen eta gizartearen artean. Difusio programen bidez eta irakaskuntzaren, prestakuntzaren eta ikerketaren eremuko trukearen eta lankidetzaren bidez gauzatzen dira.

2017/2018 ikasturtean ondoko azpi-ataletan zehazten diren hitzarmenak bideratu ziren UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan:

Beste administrazio publiko batzuekin egindako hitzarmenak

Lankidetzaren hitzarmena Arabako Foru Aldundiaren eta UPV/EHUren artean, Arabako Campusean Garapenerako Lankidetzaren Proiektuak sustatzeko. Hitzarmen honen helburua da proiektu hau diruz laguntzeko 15.000 €-ko ekarpena arautzea: "Gaztenpatia: Garapenerako Lankidetzaren inguruko praktikak eta gradu amaierako lanen programa". 2017/2018 ikasturtean, hitzarmen honi esker 750 €-ko 4 beka eman ahal izan zitzaizkien Gaztenpatia programako ikasleei, eta Kulturarteko II. Gaztenpatia Topaketa antolatu zen.



Lankidetzaren hitzarmena [Lankidetzarako Euskal Toki Erakundearen Elkartearen \(Euskal Fondoa\)](#) eta UPV/EHUren artean, lankidetzaren aritzeko [Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate praktiken edo gradu amaierako lanen programan](#). Euskal Fondoak 15.000 €-ko diru laguntza ematen du, zati batean ordaintzeko praktikak eta GrALak garapenerako lankidetzari lotutako proiektuetan diharduten ikasleen gastuak. Zehazki, 2017/2018 ikasturtean, hitzarmen honi esker 750 €-ko 20 beka eman zitzaizkien programan parte hartzen zuten ikasleei.



Lankidetzaren hitzarmena Bilboko Udalaren eta UPV/EHUren artean, diruz laguntzeko Bilbon ostatu hartzea eta mantenua, hala garapenerako lankidetzaren laguntzan lehentasuna duten herrialdeetako ikasleenak (UPV/EHUrekin hitzarmena dagoenean) nola nazioarteko babesa eskatu edo jaso duten UPV/EHUko ikasleentzat. 2017/2018 ikasturtean laguntza honen (guztira 8.000 € izan dira) onuradun izan dira 6 ikasle: 4 emakume eta 2 gizon (horietako bat ikasle errefuxiatua). Jatorri herrialdeak Kolonia, Bolivia, Ekuador eta Afganistan izan dira.



EAEko gizarte erakundeekin egindako hitzarmenak

EAEko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin (GGKE) sinatutako hitzarmenak, Garapenerako Lankidetzaren esparruko praktiken eta GrALen programa finkatzea ahalbidetu dutenak. 1. taulan zehaztu dira

1. taula: EAEko GGKEekin kudeatutako hitzarmenak (2017/2018 ikasturtea)

UPV/EHUko ikastegia	Lankidetzarako euskal erakundea
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Gasteizko Saharai Elkarte
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Euskal Fondoa - Lankidetzarako Euskal Toki Erakundearen Elkarte
Psikologia Fakultatea	Medicus Mundi Gipuzkoa

Programa horren barruan, beste gure herrialdeaz kanpoko erakundeekin ere sinatu dira hitzarmenak. 2. taulan zehaztu dira

2. taula: atzerriko erakundeekin kudeatutako hitzarmenak (2017/2018 ikasturtea)

UPV/EHUko ikastegia	Atzerriko lankidetzaren erakundea / herrialdea
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	TAU Bolivia
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Ochoch Hikeek elkarte zibila Guatemala
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Sonríe y crece jóvenes Dominikar Errepublika
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	TECHO Peru

3.2. DIRU LAGUNTZEN DEIALDIAK UNIBERTSITATEAREN LANKIDETZA GARAPENERAKO PROIEKTUETARAKO

Unibertsitatearen Lankidetzaren Garapenerako (ULG) proiektuetarako diru laguntzen deialdiak, UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Errektoreordetzak 2014az geroztik urtero argitaratzen duenak, helburu nagusi du UPV/EHU osatzen duten kideen partaidetza sustatzea gizarte bidezkoagoak eta iraunkorrak lortzeko proiektuetan. Horretarako, UPV/EHUK diru laguntzak ematen ditu, ULG proiektuak osorik edo zati batean finantzatzeko, betiere UPV/EHUko komunitateko kideek gauzatzen badituzte honako esparru hauetan: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenera aplikatutako ikerketa; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; unibertsitatearen sendotze instituzionala garapen bidean dauden herrialdeetan; eta garapenerako hezkuntza. Gainera, gaur egun, ezinbesteko betekizuna da proiektuetan ezartzen diren helburuek eta aurreikusten diren onurek bat egitea [Nazio Batuen Agenda 2030](#)eko Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH)

2017/2018 ikasturtean, honako ebazpen honen bidez argitaratu da deialdi honen 2018ko edizioa: [Ebazpena, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordearena, 2018ko ekainaren 29koa, Garapen Iraunkorra helburu duten unibertsitate lankidetzako proiektuetarako laguntzen deialdia argitaratzekoa.](#)

Oraingoan, 52.000 € daude, eta gehienez 15.000 €-ko diru laguntza emango da proiektu bakoitzeko. Azken urteotan egindakoari jarraituta, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak aholkularitza pertsonalizatua eman du, pertsona interesdunei argibideak emateko eskaerak egin behar dituztenean. Aholkularitza hori ezinbestekoa da UGLko proiektuak egiten esperientzia mugatua duten IIPek eta AZPek deialdi honetan eta beste batzuetan proposamenak aurkez ditzaten. Deialdi honen esleipenaren argitalpena 2018/2019 ikasturtearen hasierarako aurreikusi da.

Halaber, 2017/2018 ikasturtean [2017an Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako proiektuen deialdia](#)ren bidez diruztatutako proiektuen jarraipena egin da. Emaitzak eta ondorioak 2018ko hirugarren hiruhilekoan aurkeztu zituzten. 3. taulan zehazten dira proiektuen izenburuak, arduradunak eta bakoitzari esleitutako zenbatekoak.

3. taula: UGL proiektuetarako laguntzen esleipena (2017)

Proiektuaren izenburua	Arduraduna	Laguntza:
Fortalecimiento de la cooperación universitaria entre la Facultad de Ingeniería y Arquitectura de El Salvador (FIA-UES) y la UPV/EHU para el intercambio de conocimientos científico-tecnológicos (Fase2)	Aitor Gómez Arribillaga Mugarik Gabeko Ingeniariak (MGI)	13.000 €
Propuesta formativa para el profesorado de Enseñanzas Medias de alumnado en situación de vulnerabilidad social y educativa en el área metropolitana de Buenos Aires para el abordaje de consumo de alcohol y otras drogas y exposición a la violencia	Patricia Insua Cerretani Psikologia Fakultatea	6.220 €
Afrontamiento, perdón, reconciliación y otros desafíos para las mujeres víctimas del conflicto armado colombiano	Darío Páez Rovira Psikologia Fakultatea	13.000 €

Proiektu horien emaitza esanguratsuenak honako argitalpen hauetan bildu dira:

- Gina, E., Puente, A., Gracia, M, Ubillos, S., Gonzalez, J.L. eta Nieto, S. (2018, uztaila). Women in warfare: The role of discrimination and humiliation in a culture war. Comunicación presentada al *International Association for Cross-Cultural Psychology Congress*. Canada. <https://iaccpconference.com/>
- Gina, E., Puente, A., Gracia, M, Ubillos, S., Gonzalez, J.L. eta Nieto, S. (2018, uztaila). Women in warfare: The effectiveness of a cultural specific intervention in victims silenced by the war: An Emotion Regulation perspective. Comunicación presentada al *International Association for Cross-Cultural Psychology Congress*. Canada. <https://iaccpconference.com/>
- Ingeniería Sin Fronteras – Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) eta Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo (2016). Análisis del contexto y la problemática del agua. Cuaderno ISF-MGI, 01, 1-4.
- Ingeniería Sin Fronteras – Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) eta Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo (2016). Agua, saneamiento y organización comunal fortalecida. Cuaderno ISF-MGI, 02, 1-4.

- Insúa, P. eta González, S. (2016). *Taller de Competencias Sociales para Adolescentes. Propuesta para el profesorado de enseñanzas medias de alumnado en situación de vulnerabilidad social y educativa*. Donostia, Osasun Ekintza.
- Puente, A., Gracia, M., Ubillos, S., Arias, G.M., Ubillos, S., Gonzalez, J.L. eta Nieto, S. (2018, iraila). Impacto de la violencia política en la salud de las mujeres polivictimizadas de Colombia. // *Congreso Internacional de Intervención e Investigación en Salud* biltzarrean aurkeztutako posterra. <https://formacionasunivep.com/lliciis/>.
- Ubillos, S., Puente, A., Arias, G.M., Ubillos, S., Gonzalez, J.L., Gracia, M., eta Nieto, S. (2018, iraila). El perdón y el Afrontamiento de la violencia como procesos de construcción de paz en Colombia. // *Congreso Internacional de Intervención e Investigación en Salud* biltzarrean aurkeztutako posterra. <https://formacionasunivep.com/lliciis/>.

3.3. GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZARI BURUZKO JARDUNALDI ETA JARDUEREN ANTOLAKUNTZA, UNIBERTSITATEKO KIDEEI ZUZENDUAK

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak, UPV/EHUko kideei kooperazioaren eta garapenerako hezkuntzaren esparruan ematen zaien zerbitzua den heinean, zeregin nagusien artean du unibertsitateko kideentzat (IIP, AZP eta ikasleak) prestatutako difusio eta sentsibilizazio ekintzak sustatu eta antolatzea. Ekintza horien helburua da hausnarketa azalaraztea eta sustatzea ekonomikoki atzeratuen dauden herrialdeetako errealitateen inguruan, bai eta gugandik hurbilen dagoen gizartean sortzen diren desberdinkerien inguruan ere. Sentsibilizazioaren bidez, bere harremanak errespetuan, berdintasunean, ekitatean eta justizian oinarritzen dituen gizartea eraikitzen lagundu nahi dugu.

2017/2018 ikasturtean nazioarteko jardunaldi bat sortu da: [Kulturarteko II. Gaztenpatia Topaketa](#). Hain zuzen, jardunaldi horretan UPV/EHUko hiru campusetako ikastegietan gauzatutako ekitaldiak bildu zituen, eta helburua izan zen Gaztenpatia programan parte hartzen duten eragileak elkartzeko.



2017/2017 ikasturteko beste jardunaldi eta topaketa batzuk

- **ERAKUSKETA BIBLIOGRAFIKOA: "VOLUNTARIADO Y COOPERACIÓN AL DESARROLLO"**

Data: ekaina - iraila 2018
LEKUA: Bizkaiko Campuseko Biblioteka (LEIOA)



- **HITZORDUAK: "EL DDR (DESARME, DESMOVILIZACIÓN, REINTEGRACIÓN) APLICADO AL CASO VASCO: VIABILIDAD Y OPORTUNIDAD"**

Data: 2018ko apirilaren 11
Lekua: Carlos Santamaría ikergunea (UPV/EHU). Donostia/San Sebastián



- **V SEMINARIO SOBRE GÉNERO, VIH Y COOPERACIÓN AL DESARROLLO**

Data: 2017ko azaroaren 24an, 09:30ean
Lekua: Psikologia Fakultatea Donostia/San Sebastián



- **WOOREE BONG EXPONE SU OBRA 'REFUGIO'**

Data: 2017ko irailaren 1a - urriaren 27a
Lekua: Carlos Santamaría ikergunea (UPV/EHU). Donostia/San Sebastián




- **LA SALUD AL MEJOR PRECIO (PLATAFORMA TIRANTE)**

Data: 2017ko urriaren 20an, 13:00etan
Lekua: Mikel Laboa plaza. Bizkaiko Campusa, Leioa-Erandio eremua



- **ERAKUSKETA: PERFORMANCE. PINTURA EN "AMAZONIA"**

Laguntzaileak: Amassunu UPV/EHUko ikasleen elkarte
Data: 2017ko urriaren 18a
Lekua: Bizkaiko Campuseko biblioteka (Leioa)



- **MIGRACIÓN Y REFUGIO: UN MUNDO DE BARRERAS**

Data: 2017ko urriaren 11n, 10:30ean
Lekua: Bilboko Hezkuntza Fakultatea. Juliana Agirrezabala aretoa.



- **RESISTENCIA DE LOS PUEBLOS POR LA DEFENSA DEL TERRITORIO**


Data: 2017ko urriaren 10ean, 17:00etan
Lekua: Gizarte Langintzako eraikina.
Arabako Campusa.



Azkenik, nabarmentzekoa da [Invisible Express](#) film laburren lehiaketaren IV. edizioaren antolakuntza. Hain zuzen ere, ekimen hori urtero antolatzen dute elkarrekin UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak eta [Kultura, Communication y Desarrollo \(KCD\) GKE](#)ak. Lehiaketa Zinema Ikusezineko Film Sozialak Nazioarteko Jaialdiaren baitan egiten da, eta UPV/EHUko ikasleek banaka zein taldeka har dezakete parte. Edizio honetan, film laburretarako proposatutako gaia izan zen: **Erosketa eta kontsumo arduratsua**. Izenburu horren bidez, hausnarketa proposatu zitzaizkien ikasleei: ekoizpen eta garraio prozesuek gizartean eta ingurumenean eragiten dituzten ondorioen erantzukizunaz hausnartzea, bai eta herritarrok gure kontsumo eta erosketa ohituren bidez dugun eraldatze botere handiaz hausnartzea.



Edizio honetan 24 obra aurkeztu ziren guztira, eta 122 ikaslek hartu zuten parte: % 54 emakumeak eta % 46 gizonak. 1. irudian azaltzen da partaideen kopurua, generoaren eta unibertsitateko ikastegiaren arabera banatuta. Ikus daitekeenez, partaideen ia $\frac{3}{4}$ izan ziren Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleak.



1. irudia: Invisible express lehiaketan parte hartu zuten ikasleen kopurua, generoaren eta unibertsitateko ikastegiaren arabera

Honako hauek izan ziren film sarituak (1.000 € eta 500 € jaso zituzten, hurrenez hurren):

- Lehenengo saria: [Ganbara](#)
- Ikasleen saria: [ANTOJO](#)

3.4. ASILO ESKATZAILEEN ESKUBIDEEN ALDEKO JARDUERAK


Unibertsitateek ezin dute ezikusiarrena egin azken urteotan bizi dugun pertsona errefuxiatuen dramaren aurrean. Hori dela eta, unibertsitateko kideen banakako inplikazioez gain, unibertsitateak, erakunde gisa, bere giza ahalmena, baliabideak eta ezagutza jarri behar ditu pertsona minberen eskura, haien bizi baldintzak hobetze aldera. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU) dagokionez, [Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean hartutako erabakiaren](#) bidez bere egin zuen asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen eskubideak aitzakiarik gabe defendatzea. Akordio horretan, [Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziaren Batzar Nagusiak \(CRUE\) 2015eko irailaren 7an](#) adostutako helburuak gauzatze aldera, UPV/EHUK hitzeman zuen zenbait ekintza egingo zituela Euskal Autonomia Erkidegoan errefuxiatuak artatzeko.

2017/2018 ikasturtean, UPV/EHUK kolektibo hori artatzeko dituen baliabideak sistematizatu eta optimizatzeko, Iraunkortasun Zuzendaritzak "[Errefuxiatu eta asilo eskatzaileentzako UPV/EHUren harrera programa](#)" diseinatu eta gauzatu du. Programa horrek honako helburu estrategiko hauek ditu ardatz:

- UPV/EHUrako sarbidea erraztea pertsona errefuxiatuei edo nazioarteko babesa eskatu eta EAEn daudenei; horrela, laguntza ematen da kolektibo horren goi mailako hezkuntza eskubidea bermatzeko.
- UPV/EHUko unibertsitateko kideen artean balore, jarrera eta ekintza solidarioak sortzea erraztea (bereziki ikasleenak), gizarte konprometitua, kontzientea eta kritikoa sustatzeko; zehazki, jatorriko herrialdeen barnean edo herrialde horietatik atzerrira mugitu behar duten milioika pertsonen eskubide urraketaren inguruan.

Are zehatzago, 2. irudian islatzen denez, programa honek **lau jardunlerro** ditu.

- 1) Laguntza egoera akademikoa erregulatzeko eta unibertsitatean sartzeko prozesuan.
- 2) Laguntza unibertsitate esparruko beharizan bereziak asebetetzeko.
- 3) Sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzea.
- 4) Laguntza ekonomikoa eta materiala ematea unibertsitario errefuxiatuei.




2. irudia: Errefuxiatu eta asilo eskatzaileentzako UPV/EHUren harrera programan ezarritako jardunlerroak

Ondoren zehazten dira 2017/2018 ikasturtean Errefuxiatu eta asilo eskatzaileentzako UPV/EHUren harrera programan ezarritako lau jardunlerroetako bakoitzean eginikoak.

3.4.1. Laguntza egoera akademikoa erregulatzeko eta unibertsitatean sartzeko prozesuan.

Hezkuntzarako sarbidea berebizikoa da asilo eskatzaileak eta/edo errefuxiatuak harrera herrialdeetan integratzeko. EAera iritsi diren asilo eskatzaile eta errefuxiatu batzuek jatorriko herrialdean hasi zituzten unibertsitate ikasketak. Aitzitik, harrera herrialdeetan ikasten jarraitu nahi dutenean, zailtasun espezifikoak dituzte. Oztupo horien artean nabarmentzekoa da unibertsitatean sartzeko beharrezko diren informazio eta orientazio falta, bereziki kredituen aitortzari eta kualifikazioei dagokienez.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko langileek aholkularitza eta laguntza ematen diete, etorkizunerako bidean, nazioarteko babesa duten ikasleei hala unibertsitatean sartzeko prozesuan nola UPV/EHU matrikula formalizatzean. Gure esperientzia oinarri hartuta, hizkuntzak eragindako zailtasunen edo errealitate berriarekin topo egitean sortzen diren zailtasunen ondorioz, ikasleei laguntzea ezinbestekoa da babesa emateko eta kredituak baliozkotzeko eta matrikulazioaren administrazio izapideak arintzeko.




- Emakumeak
- Gizonak



- Errusia
- Sahara
- Siria
- Kolombia
- Yemen
- Venezuela

- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
- Bilboko Ingeniaritza Eskola
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- Zuzenbide Fakultatea
- Farmazia Fakultatea
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea



3. irudia: UPV/EHUn 2017/2018 ikasturtean matrikulatuta dauden eta nazioarteko babesa duten ikasleen kopurua, generoaren (goian, ezkerretara), jatorriko herrialdearen (goian, eskumatara) eta ikastegiaren (behean) arabera.

2017/2018 9 nazionalitatetako 13 ikasle (2 emakume eta 11 gizon) matrikulatu dira UPV/EHUKo 7 ikastegitan). 3. irudian ikusten da generoaren, jatorriko herrialdearen eta UPV/EHUKo matrikulazio ikastegiaren arabera banaketa.

3.4.2. Laguntza unibertsitate esparruko beharrian bereziak asebetetzeko

Ostatua eta mantenua

Aparteko kasuetan (ekonomikoko egoera ahulenean dauden pertsonak), UPV/EHUK oinarriko laguntza eskaintzen du asiloa eta babesa eskatzen duten ikasleen ostatua eta mantenua ordaintzeko. Laguntza hori posible da UPV/EHUK [Miguel de Unamuno ikastetxe nagusia](#)rekin eta [Blas de Otero unibertsitate egoitza](#)rekin sortutako akordio banari esker: biak daude Bilbon eta ikasle horien egonaldiaren % 50 besterik ez da ordaintzen. Zenbateko hori UPV/EHUK helburu horretara bideratutako funts ekonomikoarekin ordaintzen da, bai eta Bilboko Udalarekin sinatutako hitzarmen

baten bidez ere: udalerrri horretako ostatu hartzearen zati bat ordaintzen die talde horietako ikasleei (begiratu 3.1 atala).

2017/2018 ikasturtean bi ikaslek hartu dute ostatu Miguel de Unamuno ikastetxe nagusian (errusiar bat eta siriarr bat), eta Afganistango batek Blas de Otero unibertsitate egoitzan.

Halaber, UPV/EHUren aurreikuspena da laguntzak ematea mantenurako, jantokirako bonoen bidez, EAEren barnean probintzien arteko bidaiak egiten dituzten eta etxean bazkaltzeko aukerarik ez duten ikasleentzat. 2017/2018 ikasturtean Siriako ikasle batek jaso du mantenurako laguntza Bizkaiko Campusean.

Garraioa campus barnean eta campusen artean

Batzuetan, ikasi ahal izateko, ikasleek probintzien artean bidaiatu behar dute, EAEren barruan. 2017/2018 ikasturtean, helburu horretarako sortutako funtsaren bidez, UPV/EHUK ordaindu ditu Errusiako eta Siriako ikasle banaren garraio gastuak (Gasteiz - Leioa).

Ikasteko materiala

Garapenerako Lankidetzak Bulegoak jasotzen ditu asiloa eta babesa eskatzen duten UPV/EHUko ikasleen zeregin akademikoetarako behar diren liburu, eskuliburu, fotokopia eta gainerako materialen eskabideak. Zehazki, unitate hori arduratzen da eskatutako materiala erostez eta ikasleei ematez. Prestazio hori jaso dute 2017/2018 ikasturtean UPV/EHU matrikulatutako 12 ikaslek (11 gizon eta 1 neska).

Kontzeptu horretatik eratorritako gastuak UPV/EHUko funts ekonomikoak eta UPV/EHUko Letren Fakultateko funts ekonomikoak ordaintzen dituzte. Azken horrek urteko aurrekontuaren % 0,7 bideratzen du unibertsitateko ikasleen beharrezko material akademiko erosteko diru laguntzetara.

Hizkuntza ikastaroak


Goi mailako ikasketekin jarraitzea erabakitzen duten asilo eskatzaileen eta errefuxiatuen kolektiboak aurkitzen dituen zailtasun handienetako bat da EAEko hizkuntza ofizialen ezagutza txikia: gaztelaniarena eta euskararena. Bada, UPV/EHUK honako hizkuntza ikastaro trinko hauek eskaintzen dizkie pertsona horiei, oztupoak gainditzeko:

- [Aurrez aurreko hizkuntza ikastaroak](#). Bat etorritik UPV/EHU bisitatzen duten truke programetako (ERASMUS, SICUE, Latinoamerika eta beste helmuga batzuk) beste ikasle batzuen presentziarekin, [UPV/EHUko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen Errektoreordetza](#) aukera ematen dio kolektibo horri hizkuntza ikastaroetan doan matrikulatzeko; zehazki, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko campusetako ikasle bisitariari ematen zaie aukera hori. Aurreko ikasturteetan ez bezala, 2017/2018 ikasturtean nazioarteko babesa zuten

UPV/EHUko ikasleetatik batere ez da matrikulatu ikastaro modalitate horretan, denek baitzuten gaztelania maila onargarria.

- **Gaztelania ikastaroak online.** Errefuxiatu unibertsitariei zein unibertsitateaz kanpokoei begira antolatzen dira, Europako Batzordearen “[OLS errefuxiatuentzat](#)” izeneko ekimenaren barruan. Ekimen honen helburua da EBko estatu kideei laguntzea errefuxiatuen egungo krisiek eragindako migratzaileak integratzeko ahaleginean; zehazki, hezkuntza eta prestakuntza sistemetan integratzeko laguntza da, bai eta pertsona horiek dituzten gaitasun eta kompetentziak garatzea bermatzeko ere. Hala, aukera izango dute hezkuntzarekin jarraitzeko hala lanbide heziketan nola goi mailako heziketan. Gainera, lan merkatuan integratzeko aukerak areagotzen dituzte.

2016/2018 ikasturtean OLS ekimenak balorazio positiboa izan zuen bertaratuen artean, baina atzemandako zailtasun nagusietako bat izan zen lizentzien erabilera, bereiziki EAEn, muga handiak egon baitziren. Lizentzien erabilera mugatu egin zen, onuradun izan daitezkeen pertsonak ez dutelako lizentziak erabiltzeko ekipo informatikorik. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak, eskabide horren berri jasota, 2017/2018 ikasturte honetan proiektu bat abiarazi du: asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei lizentziak (softwarea) eskaintzeaz gain, ordenagailuak (hardware) erabiltzeko aukera eman die; zehazki, Bizkaiko Campuseko Esperientziaren Geletako informatika ikasgelan. Hori guztia UPV/EHUko ikasle boluntarioen laguntzarekin.



Auto-kudeatutako boluntarioritza proiektu hau (begiratu 3.9.2 atala) 2018ko otsailtik ekainera bitartean egin da, eta guztira 15 errefuxiatuk hartu dute parte (6 emakumek eta 9 gizonek), Comisión [Española de Ayuda al Refugiado](#) (CEAR) - Euskadi erakundeak bideratuta. Proiektuaren lehenengo edizioan UPV/EHUko 4 ikasleren laguntza izan dugu; zehazki, tutorizazio eta koordinazio lanak egin zituzten taldearekin. Hala ikastaroaren erabiltzaileek nola ikasle boluntarioek oso balorazio positiboa egin dute. Hori dela eta, 2018/2019 ikasturterako aurreikusi da esperientzia Arabako eta Gipuzkoako campusetara hedatzea.

Unibertsitateko instalazioetarako sarbide normalizatu hau, alde batetik, pizgarria da UGL ikastaroa jarraitzeko eta, beste alde batetik, aukera ona da nazioarteko babesa duten pertsonak UPV/EHUko ikasle boluntarioekin harremanetan jartzeko (hain zuzen, bidelagun dituzte prestakuntza prozesuan).

Sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzea

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak, zenbait erakunde eta mugimendu sozialen laguntzaz, 2018/2019 ikasturtean hainbat jarduera abiarazi ditu UPV/EHUko hiru campusetan (erakusketak, jardunaldiak eta mintegiak), jarrera solidarioak, kritikoak eta parte hartzaileak sustatzeko errefuxiatuen eta asilo eskatzaileen egoeraren eta harreraren inguruan. Ondoren zehazten dira

2017/2018 ikasturteko jardunaldi eta mintegiak

- **ZINEFORUMA: REFUGEE BLUES**
Data: 2018ko apirilaren 23an, 16:00etan
- **GENEROARI, HIESARI ETA GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO V. MINTEGIA**
Data: 2017ko azaroaren 24an, 09:30ean.
Lekua: Psikologia Fakultatea. Donostia/San Sebastián



- **WOOREE BONG. REFUGIO OBRA**
Data: 2017ko irailaren 1etik urriaren 27ra
Lekua: UPV/EHUko Carlos Santamaría gunea. Donostia/San Sebastián.



- **MIGRAZIOA ETA BABESLEKUA: OZTOPOEN MUNDUA**
Data: 2017ko urriaren 11n, 10:30ean.
Lekua: Bilboko Hezkuntza Fakultatea - Juliana Aretoa



- **MAHAINGURUA: BABESA ETA ASILOA. ZER EGIN DEZAKET NIK?**
Data: 2017ko ekainaren 13an, 15:30ean.
Lekua: UPV/EHUko Carlos Santamaría gunea. Donostia/San Sebastián



3.4.3. Diru laguntzak

Asilo eskatzaileak eta errefuxiatuak artatzeko UPV/EHUK 2017/2018 ikasturtean gauzatutako programaren garapena eta finantzazioa ahalbidetzeko (arestian deskribatu dira jarduerok), UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak ondoren zehazten diren ekarpen ekonomikoak izan ditu:

UPV/EHUko funts ekonomikoa, babes gaietarako.

UPV/EHUK, [UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean hartutako erabakia](#)ren bidez, 10.000 € / urte-ko funts ekonomikoa sortu zuen, EAEn errefuxiatuak artatzeko lanetatik eratorritako ezohiko beharrezan eta unibertsitateko kideen sensibilizazio ekintzak ordaintzeko. Funts hori UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak kudeatzen du, eta UPV/EHUren urteko aurrekontuetan jasotzen da. 4. taulan zehazten dira funts horri loturik 2017 aurrekontu ekitaldian eginiko jarduerak.

4. taula: UPV/EHUk babes gaietarako duen funts ekonomikoarekin 2017an ordaindutako gastuen zerrenda

Kontzeptua	Onuradunak	Zenbatekoa:
Ostatua, garraioa eta mantenua	UPV/EHUko ikasle errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak, Siriako nazionalitatea dutenak	9762,21 €
Liburuak, materiala eta fotokopiak	UPV/EHUko ikasle asilo eskatzaileak	237,79 €
GUZTIRA		10.000 €

Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritzaren zuzeneko laguntza

[2017ko azaroaren 14an onartu zen Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko diru laguntza](#) bat ematea UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Errektoreordetzara; zehazki, 16.000 € eman ziren 2017/2018 ikasturteko unibertsitate tasak (matrikula) eta 2016/2017 ikasturteko matrikuletatik eratorritako zorra ordaintzeko, betiere nazioarteko babespean zeuden ikasleei zegokienez. 5. taulan zehazten dira diru laguntza horren bidez 2016/2017 eta 2017/2018 ikasturteetan ordaindutako graduako eta graduondoko matrikulen gastu ekonomikoak.

5. taula: Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren bidez 2016/2017 eta 2017/2018 ikasturteetan ordaindutako graduako eta graduondoko matrikulen gastu ekonomikoak.

Kontzeptua	Zenbatekoa:
Graduko matrikulen zorrak (2016/2017)	2.647,81 €
Graduondoko matrikulen zorrak (2016/2017)	2.863,87 €
Graduko matrikulen zorrak (2017/2018)	7.877,36 €
Graduondoko matrikulen zorrak (2017/2018)	1.069,52 €
GUZTIRA	14.458,56 €

2017/2018 ikasturte honetan, UPV/EHUK eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin egin dugulan, kolektibo hori 2018/2019 ikasturtean unibertsitate tasak ordaindu behar ez dituzten kolektiboen artera gehitzeko. Emaidza positiboa izan da. Beraz, honako agindu honetan argitaratu da, berrikuntza gisa, nazioarteko babespean dauden ikasleek tasak ordaintzetik salbuesteko erabakia: [AGINDUA, 2018ko ekainaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2018/2019 ikasturtean Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzen dituen, eta horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak ezartzen dituen.](#)

Bestelako laguntzak

- **UPV/EHUn eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, UPV/EHUn ikasten duten atzerriko ikasleei, errefuxiatuei eta asilo eskatzaileei babesa emateko.** Hitzarmen honen xedea da atzerriko ikasleei, asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei erraztea UPV/EHUn graduko ikasteak egitea; zehazki, Bilbon ostatu hartzeko eta mantenurako laguntzak emanez.
- **Hitzarmenak UPV/EHUn ikastegi nagusiekin eta egoitzekin Bizkaiko Campusean.** 2017an akordio bana sinatu zen Bizkaiko Campuseko bi ostatu gune horiekin; zehazki, Miguel de Unamuno ikastetxe nagusiaren, Blas de Otero unibertsitate egoitzaren eta UPV/EHUn artean. Bada, akordio horiei jarraikiz, UPV/EHUKo graduko ikasleen egonaldiaren % 50 bakarrik fakturatzen da, betiere ikasle horiek errefuxiatuak edo asilo eskatzaileak badira. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko langileek lanean dihardute akordio hori hedatzeko UPV/EHUK Arabako eta Gipuzkoako campusetan dituen egoitzetara.
- **Letren Fakultateko funts ekonomikoa** UPV/EHUKo Letren Fakultateak bere urteko aurrekontuaren % 0,7 bideratzen du, 2016az geroztik, nazioarteko babespean dauden unibertsitateko ikasleen beharrezko material akademikoak erosteko. 2017an 672,26 € bideratu dira.

6. taula: EAEn errefuxiatuak artatzeko jardueretarako ekarpenen laburpena (2017/2018 ikasturtea)

Ekarpenaren jatorria	Zenbatekoa guztira
Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza	14.458,56 €
UPV/EHUKo Letren Fakultateko funtsa (% 0,7)	672,26 €
UPV/EHUn funtsa errefuxiatuentzat	10.000 €
Bilboko Udala	600 €
Miguel de Unamuno ikastetxe nagusia (ostatua 2017ko irailtik 2018ko abuztura)	9.086 €
Blas de Otero unibertsitate egoitza	2.332 €

(ostatua 2017ko irailetik 2018ko abuztura)	
GUZTIRA	37.148,82 €

3.5. AHOLKULARITZA TEKNIKOA IRAKASLE ETA IKERTZAILEEI, AZPKOEI ETA IKASLE ERAKUNDEEI

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak aholkularitza teknikoa ematen die, garapenerako lankidetzaren inguruan, hala eskatzen duten unibertsitateko kideei. Laguntza tekniko hori UGL proiektuen sorrera, jarraipen eta ebaluazio metodologiekin dago lotuta, baita kanpoko finantzazioa bilatzearekin ere. 7. taulan zehazten dira Bulegoak 2017/2018 ikasturtean kudeatutako proiektuak, deialdiekin, arduradunekin eta esleitutako laguntzekin batera.

7. taula: 2017/2018 ikasturtean kudeatutako UGL proiektuak

Deialdia	Proiektua	Arduraduna	Emandako finantzazioa
Lankidetzaren proiektuetarako deialdia (Lankidetzarako Euskal Agentzia)	Cooperación para un nuevo modelo energético: La transición democrática de la deuda ecológica al buen vivir. Tradebu	Iñaki Bárcena Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	174.845,03 €
Mugikortasun programa hispaniar-brasilarra	Universidade do Estado do Rio de Janeiro	Oscar Álvarez Gila Letren Fakultatea	19.440

3.6. UPV/EHUko IKASLEENTZAKO IKASTARO MONOGRAFIKOAK ANTOLATZEA; ZEHAZKI, GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAREN ARLOKOAK

UPV/EHUko zenbait unibertsitate ikastegirekin, Garapenari eta Lankidetzari buruzko Azterlanen Hegoa Institutuarekin eta EAEko Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakunde (GGKE) batzuekin batera, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak 2004az geroztik urtero antolatzen ditu garapenari eta lankidetzari buruzko 10 bat ikastaro monografiko. Ikastaro horien bidez UPV/EHUko ikasleek aukera dute hainbat eta hainbat lan jorrazteko asko eta ugariak baitira ikastarootan lantzen diren gaiak: ingurugiro hezkuntza, elikagaien segurtasuna, genero ikuspegia, partaidetza demokratikoa eta pertsonen politika segurtasuna, garapenari lotutako arlo teknologikoak, osasuna, giza eskubideen arloko arazoak, hazkunde ekonomikorako baldintza desiragarriak, finantzen arloko arazoak, merkatuen globalizazioa eta abar.

Ikastaro horietako bakoitzak 50 orduko iraupena du; beraz, graduako irakaskuntzan hautazko 2 kreditu aitortzen dira. 50 kreditu horietatik 20 ordu aurrez aurreko irakaskuntzari dagozkie, eta 30 ordu hitzaldi eta mintegietara bertaratzeari, eta lanak egiteari. Aurrez aurreko orduak honela antolatzen dira: 20 ordu horien barruan, lehenengo atal komun bat dago, Monografikoen Batzordeak zehazten duena (6

irakaskuntza ordu). Bestalde, atal espezifikoak dago, eta ikastegiko ezagutza arloari eta/edo ikastaro monografikoari dagozkion titulazioei dagokie (14 irakaskuntza ordu).

Ikastaroen irakaskuntzan esku hartzen duten irakasleak UPV/EHUko irakasleak eta EAEko GGKEetako langileak dira, baita unibertsitate elkarretekoak ere. Hain zuzen ere, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak lankidetzaren hitzarmenak ditu horiekin. Ikastaro monografiko horietan honako GGKEek hartu dute parte, besteak beste: Mugarik Gabeko Ekonomia-lariak, Mugarik gabe, Haurralde Fundazioa, Círculo Solidario, KCD, Medicus Mundi Gipuzkoa eta MGI (Mugarik Gabeko Ingeniariak).

2017/2018 ikasturtean 8 ikastaro monografiko antolatu dira, eta guztira 192 pertsona matrikulatu dira. 8. taulan azaltzen dira matrikulatutako ikasleak, campusaren, ikasturtearen eta generoaren arabera antolatuta.

Ezinbesteko da ikastaro monografikoa egitea Practicum edo Gradu Amaierako Lana (GrAL) garapenerako lankidetzaren arloan egiteko, eta gomendagarria da UPV/EHUK antolatutako lankidetzaren proiektuetan boluntario aritzeko. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoren ustez, horrelako proiektuetan parte hartzeko, beharrezkoa da alde aurreko prestakuntza izatea.

8. taula: 2017/2018 ikasturtean garapenerako lankidetzari buruz egindako ikastaro monografikoak (irakatsi diren campus eta ikastegiaren arabera) eta bertaratuak, generoka

BIZKAIKO CAMPUSA			Guztira	Emakumeak	Gizonak
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Bilboko Ingeniaritza	2017/09/29 - 2017/12/15	21	13	7
Talleres Prácticos en Cooperación al Desarrollo	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	2018/03/24 - 2018/04/02	37	31	6
Retos actuales del Desarrollo y la Cooperación en la Economía Global 2018	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2018/02/23 - 2018/03/23	30	18	12
GIPUZKOAKO CAMPUSA					
Introducción a la cooperación para el desarrollo	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F. / Psikologia F.	2017/09/18 - 2017/09/26	26	20	6
Hezkuntza eta lankidetzaren garapenean kurtso monografikoa (euskaraz)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F. / Psikologia F.	2018/06/04 - 2018/06/07	28	25	3
Otra economía es posible: construyendo una economía solidaria con equidad y sostenible	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2018/02/22 - 2018/03/22	25	20	5
Lankidetzaren eta Arkitektura	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	2017/12/15 - 2018/05/15	6	4	2

ARABAKO CAMPUSA					
Desarrollo y cooperación solidaria	Lan harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	2017/10/02 - 2017/11/27	19	16	3
Guztira			192	147	44

Ikastaro monografikoen inguruko ebaluazioak aztertuta, ondorioztatu dugu hobekuntza proposamen batzuk lortu direla eta 2018/2019 ikasturtean ezarriko direla. Proposamen horien artean dago ikastaro monografikoak ikasgelan eta ikasgelaz kanpo edo formatu mistoan eskaintzea. Ikasgelaz kanpokoen kasuan, *online* ikastaro bat egin beharko litzateke Garapenerako Lankidetzaren Unibertsitarioaz (GLU): 2018/2019 ikasturtetik aurrera euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko da eGELAPI plataforma birtualaren bidez (<https://egelapi.ehu.eus/>). Garapenerako Lankidetzaren Unibertsitarioko *online* ikastaroa ezarri da zeharka sartzeko GLUaren inguruko prestakuntza gure unibertsitateko diziplina eta ezagutza arloetan.

Ikastaro honek honako elementu hauek izango ditu: irakurketa gomendatuak, bideoak, webguneak eta hainbat formatutako hausnarketa ariketak, GLUari dagozkion alderdi jakin batzuetan sakontzeko material osagarriaz gain. Iraupena 37,5 ordukoa da (hautazko 1,5 krediturekin baliozta daitezke)-

3.7. GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO UNIBERTSITATE PRAKTIKAK ETA GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) EGITEKO PROGRAMA

[Garapenerako lankidetzaren proiektuetan praktikak eta gradu amaierako lanak \(GrAL\) egiteko programak](#) (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an onartua) aukera ematen dio ikasleari nahitaezko praktikak eta gradu amaierako lana garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzaren programak garatzen dituzten erakundeekin egiteko, eta esperientzia hori prestakuntza akademiko-praktikoaren parte bezala sartzeko. Unibertsitatearen misioa da munduan diren aldeen kontzientzia daukaten profesional prestatzea eta gai direnak gizartearen aurrerapenean eragina daukaten arazoengatik inguruko eztabaidetan partzeko; eta, hain zuzen ere, misio hori izan zen 2003/2004 ikasturtean programa hori abian jartzeko oinarri. Bestalde, UPV/EHUk berak hartzen ditu bere gain mota horretako praktikak eta GrALak, eta bermatzen du iraunkorrak direla eta hezkuntzan eragina dutela.

Garapenerako lankidetzaren proiektuetan praktikak eta GrALak egiteko programak honako hatsarre hauek ditu oinarri: Garapenerako proiektuetan egiten diren praktikek prestakuntzari egiten dioten ekarpen handia aitortzen du.

- Erraztu egiten du ikasleek prestakuntza akademikoa eta profesionala hobetzea, esperientzia horren bidez osatu egiten baitu prestakuntza ikuspegi berrien bidez eta aukera ematen baita bestelako gaitasunak garatzeko.
- Garapenerako lankidetzaren inguruko motibazio bizia duten ikasleen eskaria asebetetzen du.
- UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzaren erakundeen arteko lan bateratua bultzatzen du, horren bidez praktikak eta GrALak arrakastatsuak izango direla eta unibertsitateko kideak sentibilizatzeko zeregina eraginkorra izango dela bermatzeko.

Praktika eta GrALen programak 60.000 €-ko funts ekonomikoa du ikasturte bakoitzeko, eta parte hartu nahi duten ikasleen bidaiak eta aseguru gastuak babesteko erabiltzen dira. Banakako zenbatekoa 750 €-koa da. Diru funts hori hori Euskal Fondoak UPV/EHUri egindako ekarpenetatik lortzen da, bai eta ikasleen % 0,7 funtsetik ere (matrikularen bidez). Horren guztiaren bidez, ondoko jarduerak bultzatu nahi dira:

- 1. modalitatea: garapenerako lankidetzako unibertsitate praktikak garapen bidean dauden herrialdeetan.
- 2. modalitatea: gradu amaierako lana garapeneraren eta/edo lankidetzaren esparruan.

Honako hauek dira programak esku hartzen duten eragileak:


- GGKEak edo lankidetzaren erakundeak, garapenerako lankidetzaren proiektuak aurkeztu dituztenak: unibertsitateko ikasleek horiekin egiten dute bat.
- Unibertsitateko ikastegiak, irakaskuntza programan garapenerako lankidetzaren programen esparruan egiteko nahitazeko praktikak edo GrALak jasotzen dituztenak (GGKEek gauzatzen dituzte lekuan leku).
- Ikasleak: prestakuntza profesionalaren zati bat curriculumeko praktiken edo GrALen bidez lortzen dituzte, eta, horretarako, garapenerako lankidetzaren proiektu batean parte hartzen dute.
- Finantzazio agenteak, hala nola Euskal Fondoak: Bilboko, Vitoria-Gasteizko eta Donostia/San Sebastiáneko udalak bezalako erakundeek ekarpenak esker, baliabide finantzarioak daude ikasleek dagokien lekura bidaiatzeko gastuaren zati bat finantzatzeko.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa, bitarteko agente lanak egiten dituena alderdien artean; gainera, programari jarraipena ematea ahalbidetzen duten kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazio lan osagarri guztiak gauzatzen ditu.

3.7.1. Programaren emaitzak (15. edizioa, 2017/2018 ikasturtea)


Abian jarri zenetik eta 2017/2018 ikasturtera bitartean, unibertsitateko 16 ikastegitako 1.087 ikasle hartu dute parte. Ikasle horiek Latinoamerikako, eta Afrikako 23

herrialdeetara joan dira proiektu honetako praktikak egitera, eta hogeita hamar bat izan dira finantziazioan lagundu duten lankidetzaren erakundeak.

Zehazki, 15. edizioan (2017/2018) UPV/EHUko 80 ikaslek parte hartu dute programan. Ikasleen talde hori Latinoamerikako eta Afrikako 13 herrialdeetatik ibili da, praktikak edo gradu amaierako lanak (GrAL) garapenerako lankidetzaren inguruan egiteko. Generokako, helmuga herrialdekako eta ikastegirikako (eskola edo fakultatea) banaketa 4. irudian dago ikusgai. Aurreko edizioetan bezala, programan emakume gehiagok parte hartzen dute; zehazki, ikasle guztien hiru laurden baino gehiago dira (% 83,75). Gainera, azpimarratzekoa da ikasleen % 31,25 Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean daudela matrikulatuta, eta % 18,75 Psikologia Fakultatean: oso feminizatutako graduak dira. Helmuga herrialdeei dagokienez, nabarmentzekoa da Latinoamerikako herrialdeak direla, komunikaziorako gaztelania darabiltenez, eskabide gehien jasotzen dituzten herrialdeak. Halaber, gehitzekoa da edizio honetan espedizio handiak bidaiatu duela Saharara, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak Gasteizko Elkarte Saharariarekin sinatu duen hitzarmenari esker.



- Ekonomia eta Enpresa F.
- Psikologia F.
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.
- Arkitekturako GET
- Farmazia F.
- Medikuntza eta Erizaintza F.
- Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.
- Zientzia eta Teknologia F.
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza F.



4. irudia: 2017/2018 ikasturtean garapenerako lankidetzaren proiektuei buruzko praktika eta GrALen programan parte hartu duten ikasleak, generoka (goian, ezkerretara), helmuga herrialdeka (goian, eskumatara) eta ikastegika (behean).

3.7.2. Gaztenpatia 2017/2018 programa

Euskal Fondoarekin lankidetzan, 2015/2016 ikasturtean jarri zen martxan [Gaztenpatia proiektua](#). Proiektu hau UPV/EHUk eta Euskal Fondoak egindako 10 urtetik gorako lankidetzaren emaitza da, eta unibertsitatearen misio bati erantzuten dio: munduan diren aldean kontzientzia daukaten profesionalak prestatzea eta gai munduan dauden desberdinkerien jakitun diren profesionalak prestatzea; hain zuzen ere, gizartearen aurrerabideari eragiten dioten arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzeko gaitasuna duten profesionalak. Programak ondoko printzipioak ditu oinarri:


- **Prestakuntza.** Garapenerako proiektuetan egiten diren praktikek prestakuntzari egiten dioten ekarpen handia aitortzen du: ikasleak hobetu egiten du prestakuntza akademikoa eta profesionala, esperientzia horren bidez osatu egiten baitu prestakuntza ikuspegi berrien bidez eta aukera ematen diote gaitasun berriak garatzeko.
- **Enpatia.** Ikaslea garapenerako lankidetzaren arloan oso motibatuta egotea eskatzen du: baliabide gabeziak eta zailtasun handienak dituzten gizarteei eta gurearekin alde gero eta handiagoa daukatenei laguntza emateko nahia gailendu behar zaio praktika interesgarri eta aberasgarriak egiteari.
- **Gazteria.** Erakunde sozial bakoitzean exekutatu diren garapenerako laguntza proiektuekin lotutako herrialdeetako gazteek esku hartuko duten ekintza partekatua.
- **Komunikazioa.** Gure ustez, proiektu honen komunikazioa eta ikusgarritasuna proiektuaren beraren funtsezko osagaiak dira. Horrenbestez, ikus-entzunezko mundua funtsezko pieza izango da Gaztenpatian, eta komunikazio hori "bizirik" mantentzeaz arduratuko dira Ikaika Media, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa, parte hartzen duten ikasleak eta tutorizazioaz arduratzen diren pertsonak.




Proiektu honen III. edizioa martxan jartzeak ahalbidetu egin du 2017/2018 ikasturte honetan UPV/EHUko 6 ikastegitako 26 ikaslek (20 emakume eta 6 gizon) praktikak edo GrALak egitea garapenerako lankidetzan proiektuetan; zehazki, [Euskal Fondoak](#) proiektuak martxan dituen hiru herrialdetan: Guatemala, El Salvador eta Nikaragua.



5. irudian zehazten da parte hartzaileen kopurua, generoaren, helmuga herrialdearen eta matrikulatuta dauden UPV/EHUko ikastegiaren arabera. Azpimarratu egiten dugu, aurreko edizioan bezala, emakume ikasleen kopurua nabarmen handiagoa (% 76) dela gizon ikasleena (% 23,1) baino. Helmuga herrialdeari dagokionez, aintzat hartu behar dugu Nikaraguak 2017/2018 ikasturte honetan bizi izan duen egoera soziopolitiko larriak bertan behera utzarazi dituela herrialde horretara programatutako bidaia ia guztiak; beraz, ikasle gehienak El Salvadorrera eta Guatemalara joan dira. Ikus daitekeenez, parte hartzaileen % 38,5 Arkitekturako goi eskola teknikoan daude matrikulatuta, % 23 Psikologia Fakultatean eta % 19,3 Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. Halaber, programan parte hartzen dute, nahiz eta ikasle gutxiago izan, honako ikastegi hauek: Farmazia Fakultatea (% 7,7), Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (% 7,7) eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (% 3,8).




■ Emakumeak
■ Gizonak



■ El Salvador ■ Guatemala ■ Nikaragua

- Ekonomia eta Enpresa F.
- Psikologia F.
- Gizarte eta Ekonomia Zientzien F.
- Arkitektura GET
- Farmazia F.
- Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.



5. irudia: 2017/2018 ikasturtean Gaztenpatia programaren barnean garapenerako lankidetzaren proiektuetan parte hartu duten ikasleak, generoko (goian, ezkerretara), helmuga herrialdeko (goian, eskumatara) eta ikastegiko (behean).

Gainera, 2017/2018 ikasturtean hiru irakasle-tutorek bidaiatu dute El Salvadorrera eta Guatemalara. Horietakoa bat Gipuzkoako Arkitektura GETekoa (Enkarni Gómez), beste bat Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatekoa (Maggi Bullen) eta hirugarrena Psikologia Fakultatekoa (Arrate Agirrezabal). Bidaia horien helburu nagusia izan da UPV/EHUko ikasleen jarduerak gainbegiratzea eta harremanak sendotzea herrialde horietako ikasleen komunitateekin. Irakasle horiek datu bilketa zehatza egin dute: programaren ebaluazio fasean eta 2018/2019 ikasturterako proposamenean aztertuko dira. Aurreikuspena da ebaluazio hori 2018ko azken hiruhilekoan egitea.

3.8. SOLIDARITATE EDO LANKIDETZA JARDUERAK

UPV/EHUK bere egiten du bere ikasleei prestakuntza emateko lanak, bai akademikoki, bai gizarteko arazoak eztabaidatzeko guneetan parte hartu dezaten berdintasuna, jasangarritasuna eta giza eskubideak oinarri hartuta. Zalantzarik gabe, helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da unibertsitatearen egunerokoan hausnarketa ahalbidetzen duten espazioak sortzea eta solidaritatea, berdintasuna eta justizia soziala bezalako baloreak gauzatzea. 2017/2018 ikasturte honetan ondoren deskribatzen diren jarduerak egin dira.

3.8.1. Hautazko kredituak aitortzea solidaritate eta kooperazio jarduerak egiteagatik

UPV/EHUK 2012ko maiatzean onetsi zuen [Gradu ikasketetako kredituak aitortu eta transferitzeari buruzko araudi orokorra](#). Hain zuzen, 11. artikuluan dio UPV/EHU matrikulatutako ikasleek elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango duela, eta gehienez ere ikasketa planeko 6 kreditu lortu ahal izango dituztela, ikasturte bakoitzean gehienez ere 3, eta jardun horretan emandako 30 orduko kreditu bat aitortuko zaiela.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak jarduera solidarioetan eta lankidetzakoetan parte hartzen duten ikasleen jarraipena egiten du. Besteak beste, honako lan hauek egiten dira:

- Koordinazio lana hiru lurraldeetako boluntarioria agentziekin: Bolunta, Gizalde eta Sartu, bai ikasleei betekizunen berri emateko, bai ikasleak aurkitzeko, bai ikasleen ekintza solidarioak eta lankidetzakoak hautazko kredituekin aitortzen dituzten erakundeekin harremanetan jartzeko.
- Erakundeetan jarduera solidarioetan lanean hasi aurretik ikasleei boluntarioriazaren esparruan eskatzen zaien prestakuntza. Prestakuntza hori jardunaldi batean ematen da, eta ikasleek gauzatzen dute boluntarioria agentzien bidez erakundeetan bertan edo UPV/EHUren ikastaro monografikoetan (begiratu 3.6 atala).
- Ikasleek eginiko jarduerak ebaluatzea eta hautazko kredituak aitortzeko ziurtagiriak ematea (hala badagokio). Ekintza hori ikasturte barruan hiru sasotan gauzatzen da; hain zuzen, UPV/EHUK ezarritako bideen bidez iragartzen dira (telebista pantailak, EHUtaula, ikastegietara igorritako informazioa...).

2017/2018 ikasturtean, UPV/EHUko ikasleak 30 erakunderekin baino gehiagorekin aritu dira lanean. Bada, erakunde horiek ziurtagiriak eman dituzte, ikasleek eginiko lana eta dedikazio orduak aitortuz. Memoria honen **1. eranskin**ean jasotzen da UPV/EHUko ikasleak ikasturte honetan boluntario aritu diren erakundeen zerrenda.


Beste alde batetik, ikasturte honetako berrikuntza gisa, ikasleek ere balorazio pertsonaleko txostena ematen dute, erakundeetan boluntario eginiko lankidetzak aldiari buruz. Txosten horietatik nabarmentzekoa da ikasleek egiten duten balorazio positiboa, ikasteko eta hainbat iritzi entzun eta errespetatzeko aukeragatik; halaber, nabarmendu egiten dituzte bereganatzen dituzten gaitasunak, jarrerak eta konfiantza.

9. taulan azaltzen da hautazko kredituak aitortzeko ikasleen eskabideak, baiezko erantzuna jaso dutenak. 2017/2018 ikasturtean **436,5 kreditu** aitortu zaizkie guztira UPV/EHUko hiru campusetako **170 ikasleri**. Nabarmentzekoa da emakumeen kopurua nabarmen handiagoa dela gizonena baino: 188 emakume vs 49 gizon.

Gainera, azpimarratzekoa da ikastegi jakin batzuetako ikasleek interes handiagoa agertzen dutela boluntarioria ekintzetan parte hartzeko eta esperientzia horietako kide izateko. 6. irudian azaltzen da zein ikastegitan hautatu duten ikasleek hautazko kredituak aitortzeko. **Medikuntza eta Erizaintza** fakultateetan (24 pertsona) eta **Psikologia Fakultatean** (24 pertsona) daude erakundeetan boluntarioria lana egin duten ikasleen ia erdia.

9. taula: 2017/2018 ikasturtean solidaritate eta lankidetzak jarduerak egin izanagatik hautazko kredituak baliozkotzeko eskatu duten ikasleen kopurua, sexuaren arabera

	ikasle kopurua	Kreditu kopurua
Emakumeak	118	299,5
Gizonak	49	127
Pertsona ez binarioa	3	10
GUZTIRA	170	436,5



6. irudia: UPV/EHUko ikasle boluntarioen jatorrizko ikastegia (2017/2018 ikasturtea)

3.8.2. Boluntarioria auto-kudeatuko programa

UPV/EHUK aitortu egiten ditu, hautazko kredituekin, UPV/EHUko ikasleek zuzenean sustatutako solidaritate eta lankidetzaz jarduerak. Hain zuzen, jarduera horiei *jarduera auto-kudeatu* esaten zaie, eta honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Unibertsitatearen esparruan edo erakunde sozial baten eremuan gauzatzea;
- Jendearentzat irekita egotea eta UPV/EHUko graduren batean matrikulatutako 3 ikasle, gutxienez, (7 ikasle, gehienez) sustatzea.
- Solidarioak izatea eta beharizan sozial orokorren bati edo talde espezifikoaren bati erantzutea.
- Parte hartzen duen ikasle bakoitzak gutxienez 30 ordu eskaintzea.

2017/2018 ikasturtean auto-kudeatutako lau jarduera hauek gauzatu dira:

On line prestakuntza linguistikoa nazioarteko babesa eskatu duten pertsonentzat, CEAREkin elkarlanean

Lankidetzaz Bulegoak lehenengoz eskaini die *on line* prestakuntza linguistikoa nazioarteko babesa duten pertsonari, Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR) erakundearekin laguntzarekin. Programa horren helburua da errefuxiatuak integratzea Europako hezkuntza eta prestakuntza sistemetan, eta beren trebetasunen garapena bermatzea.

Ekimen hori 2018ko otsailetik ekainera bitartean gauzatu zen, eta **4 boluntariok** lagundu dute; hain zuzen ere, laguntza eman diete *on line* prestakuntza hori jaso duten **15** pertsoneri. Ikasle boluntarioak “Esperientzia gelak” ikastegitik etorri ziren, eta esperientziaren balorazioa “oso positiboa” izan da. Azpimarratu egiten dute ikastarora bertaratutako pertsonen motibazioa oso handia izan dela eta esperientziak aberastu egin dituztela pertsona gisa.–10. taulan azaltzen da ikasle boluntarioen eta parte hartzaileen banaketa generoka.

10. taula: 2017/2018 ikasturtean on line prestakuntza linguistikoko programan parte hartu duten ikasleen kopurua, generoaren arabera banatuta


	Emakumeak	Gizonak
Ikasle boluntarioak	2	2
Online ikastaroko ikasleak	5	10

Lehenen laguntzen inguruko jardunaldiak

Aurreko ikasturtean martxan jarritako ekimenari jarraituta, 2017/2018 ikasturtean Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko ikasle talde batek oinarritzko prestakuntza eman die, lehen laguntzen inguruan, Bilboko Hezkuntza Fakultatean. Zehazki, ordu eta erdiko eskola teorikoa eta saio praktikoa bat egin dituzte (hori ere ordu eta erdikoa), larrialdi egoeretako jardunbideei buruz. Honako gai hauek landu dira:

- Istripuz gertatutako intoxikazioak umeen artean
- Zauriak, erredurak, kolpeak, hausturak
- Bihotz-biriketako bizkortzea (BBB)
- Gaixo kritikoak artatzea
- Eztarriko trabamenduak, konbultsioak eta sinkopeak

2017/2018 ikasturtean lehen laguntzen inguruko 2 jardunaldi antolatu dira, 2017ko irailaren 21ean eta 2018ko otsailaren 15ean. **1. jardunaldian 37 ikasle neska eta 4 ikasle mutil** aritu ziren: 15 ikasle Haur Hezkuntzako graduiko ikasleak ziren, 13 ikasle Lehen Hezkuntzako graduiko ikasleak eta 13 ikasle Gizarte Hezkuntza graduiko ikasleak. **2. jardunaldian 38 ikasle neska eta 4 ikasle mutil** aritu ziren: 20 ikasle Haur Hezkuntzako graduiko ikasleak ziren, 19 ikasle Lehen Hezkuntzako graduiko ikasleak eta 4 ikasle Gizarte Hezkuntza graduiko ikasleak. 7. irudian zehazten da bi jardunaldietan parte hartu zuten ikasleen kopurua, generoka.



6. irudia: 2017/2018 ikasturtean lehen laguntzetako jardunaldietan parte hartu zutenen kopurua, generoka

Beste alde batetik, azpimarratzekoa da jarduera hau sustatu zuten ikasleak Medikuntza Graduko ikasleak zirela, eta horien artean lau ikasle: 3 gizon eta 1 emakume.

Jardunaldien balorazioari dagokionez, nabarmentzekoa da parte hartzaile gehienek adierazi dutela nahiko gai ikusten dituztela beren buruak egoera kritiko batean; halaber, adierazi dute landutako gaiak oso erabilgarriak izan zaizkiela beren lanerako edo ikasketetarako.

Babes akademikoa Antigua-Luberri institutuko (Donostia) ikasleei

2017/2018 ikasturtean, UPV/EHUko ikasleek boluntario lanak egin dituzte Antigua-Luberri Institutuan (Donostia). Boluntariotza auto-kudeatuko lanetan babes akademikoa eta emozionala eman dute, loturak sortu dituzte eta erreferente positibo izan dira ikastetxe horretan minberatasun egoeran zeuden ikasleentzat.

Bisita gidatuak SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA erakundearen *Pensad que esto ha sucedido* erakusketan

Zuzenbidea, Kriminologia, Psikologia eta Pedagogia graduetako ikasle talde batek, UPV/EHUko irakasleen eta [SOS Arrazakeria](#) erakundeko kideen eskutik prestakuntza jaso ondoren, bisita gidatuak eskaini zizkieten UPV/EHUko ikasleei SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA erakundearen ***Pensad que esto ha sucedido*** erakusketan. Ekimen honen helburua izan zen Europaren iraganaz ikastea, arrazakeriaren eta hurkoa dehumanizatzearen ondorioz posible izan ziren izugarrikeriez hausnartzea eta eztabaida sustatzea gaur egun aniztasunak aurkezten dizkigun erronkez.

Boluntariotza proiektu honen esparruan, hiru jarduera mota antolatu ziren. Alde batetik, tartean dauden irakasle eta ikasleei prestakuntza ematea Holokaustoaren tragediaren inguruan. Prestakuntza tailerlean (*Lecciones del Holocausto: aprender del pasado para proteger los derechos humanos*) **39 pertsonak** eman zuten izena, eta UPV/EHUko 5 irakasle inplikatu ziren. Parte hartu zuten ikasleak Psikologiako gradua (9 pertsona), Zuzenbidea (15) eta Kriminologia (13) eta Pedagogia (1) ikasleak ziren:

guztira 8 gizon eta 31 emakume aritu ziren. Beste alde batetik, bisita gidatuak egin ziren *Pensad que esto ha sucedido* panel erakusketara, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatean, 2017ko urriaren 18tik abenduaren 20ra bitartean. Bisita horietan guztira 797 ikaslek parte hartu zuten, denak ere Psikologia eta Zuzenbidea fakultateetakoak. Gainera, 24 bisita hitzartu egin ziren, 2017ko azaroaren 2tik 24ra bitartean. Bisita gidatuak 15 ikaslek egin zituzten, eta prestakuntza bost lantaldetan banatuta egin zuten, betiere SOS Arrazakeriako kide bat bidelagun zutela.

Ekimenaren balorazioari dagokionez, azpimarratzekoa da unibertsitateko kideen partaidetza handia. Lorpen handia da hainbeste ikasle motibatu izana hasierako prestakuntzarako, bai eta erakusketan gida lanak egiteko gogoia mantendu izana ere.

3.8.3. Boluntariotza Azoka

Boluntariotza Azoka 2015az geroztik urtero antolatzen den jarduera da, eta jomugan ditu, bereziki, ikasleak. Zehazki, [Bolunta](#), [Gizalde](#) eta [Batekin](#) boluntariotza agentzien laguntzarekin egiten da, [UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluarekin](#), [Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin](#) eta [Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin](#) elkarlanean. Helburua da solidaritate baloreak hedatzea eta partaidetza soziala sustatzea.

Boluntariotza Azokan standak, tailerrak, performanceak eta hitzaldiak daude, erakunde sozialek eurek antolatuta. Ekimen hauen bidez, errealitate soziala unibertsitate espaziora hurbiltzen da, eta xedea da ikasleek aurrez aurre ezagutzea gure inguruko erakundeek egiten duten lana, inguruarekin konprometitutako herritarrak prestatzeko, gizarte bidezkoagoa eraikitzeko ekintzak martxan jartze eta/edo ekintza horietan parte hartze aldera.

Ekimen hauen bidez, unibertsitateak sendotu egiten du besteak beste solidaritatea, partaidetza, kooperazioa eta ingurumenaren errespetua bezalako baloreen transmisioan duen konpromisoa. 2017/2018 ikasturte honetan **100 erakunde** sozial baino gehiago bildu ziren [Boluntariotzaren III. Azokan](#) (2017ko urriaren 18a). Aldi berean egin zen Leioan (Mikel Laboa plaza), Donostia/San Sebastiánen (Ignacio María Barrioa ikastegia) eta Vitoria-Gasteizen (Letren Fakultatea). Erakundeek hainbat prestakuntza eta sentsibilizazio jarduera eskaini zituzten UPV/EHUko ikastegietan, eta horien artean nabarmentzekoak dira 12. taulan zerrendatutakoak.

Hiru boluntariotza agentziek parte hartu zuten elkarkei eginiko balorazio inkestetan lortutako emaitza "oso ona" izan da.

Memoria honen **2. eranskin**ean jasotzen da Boluntariotzaren III. Azokan parte hartzeko prest agertu ziren 102 erakundearen zerrenda.

12. taula: Boluntariotzaren III. Azokako jardueren egitaraua

Campus de Bizkaia	Antolatzailea
Tailerra: Desperdicio de alimentos Proyección de film y debate en grupo.	MANOS UNIDAS
Tailerra: DYAk larrialdi simulakro bat egiten du	DYA
Performancea. Pintura zuzenean. Gaia: <i>Amazonia</i>	AMASSUNU ikasleen elkarte
Performancea. Kaleko antzerkia. Ibilbidea autobusez Termibus geltokitik ikastetxeetaraino. Jardueren egitarau banaketa Mikel Laboa plazan	BOLUNTA
PHOTOCALL. Silueta itxurako arbelak, non ikasleek beren ideiak irudikatzen baitituzte. Gaia: boluntarioria	BOLUNTA
Amazoniari buruzko erakusketa	AMASSUNU ikasleen elkarte
Workshopa: Nola sortu berrikuntza soziala erraz eta eraginkortasunez	CIBERVOLUNTARIOS
Boluntarioriazaren inguruko informazio topaketa Boluntarioriazaren inguruko hitzaldia bibliotekan	BOLUNTA
Gipuzkoako Campusa	Antolatzailea
Charla Ocean initiatives: voluntariado ambiental para tratar la contaminación de las basuras marinas	HAURRALDE FUNDAZIOA : SURFRIDER
Kirol egokitua: saskibaloia eta futbola	GKEF. Gipuzkoako Kirol Federazioa
Mahaia: Europako boluntarioria eta tokiko boluntarioria	KAEBNAI DIRECT EUROPE DONOSTIA
Hitzaldia: Una mirada a la exclusión social	CARITAS GIPIZKOA
Joko kooperatiboak	INTERRED EUSKAL HERRIA
Kanpaina: Tecnología libre de conflicto. Erabilitako mugikorren bilketa	ALBOAN
Hitzaldia: Experiencias de voluntariado Cooperando en los países del sur	HAURRALDE FUNDAZIOA
Arabako Campusa	Antolatzailea
Musika zuzenean: Claudia Morales (ahotsa), Daniel Ortega (baxua) e Iker Barrientos (kaxa)	BATEKIN (SARTU-ARABA)
Antzerkia: <i>La salud al mejor precio</i>	MEDICUS MUNDI
Mosaikoen tailerra	INSOLA
Boluntarioria tailerra: Ikasleek aukera izango dute boluntarioria, dituzten eskubide eta betebeharrak, boluntario izateko jarraitu beharreko pausoak eta bestelakoak ezagutzeko.	BATEKIN (SARTU-ARABA)

3.8.4. Lankidetzak akordioak gizarte erakundeekin, boluntarioria jardueretarako

Gure inguruko gizarte erakundeekin eginiko lanak ahalbidetu egiten digu giza garapen iraunkorra unibertsitatera hurbiltzea. Ildo horretatik, UPV/EHUK honako jarduerak hauek bultzatzen jarraitu du 2017/2018 ikasturtean:

Unikide programa - UPV/EHU (Bizkaia)

Unikide programa 2012an sortu zen, Bizkaiko Boluntak (Boluntariotzaren eta Gizarte Partaidetzaren Agentzia) eta UPV/EHUko Gizarte Erantzukizunaren eta Proiektzio Unibertsitarioaren Errektoreordetza ohiak sustatuta. Hitzarmen honen helburua da UPV/EHUko gizarte partaidetza unibertsitarioa sustatzea Bizkaiko Campusean. Bada, EHUko Bizkaiko Campuseko ikastegietan elkarteen eta boluntariotzaren ehundura indartzeko plan bateratu bat sortzea ekarri du. Lankidetzari honi esker, besteak beste, ekintza hauek egiten dira: boluntariotza azokak, sentsibilizazio kanpainak, lankidetzari erakundeekin Bizkaian hautazko kredituak aitortzeko.

Gizalde programa - UPV/EHU (Gipuzkoa)

UPV/EHUK 2016an ezarri zuen lankidetzari programa bat Gipuzkoako boluntariotzari eta gizarte partaidetzari agentziarekin (Gizalde). Helburua zen sentsibilizazio jarduerak egitea Gipuzkoako Campuseko unibertsitate ikastegietan sentsibilizazio lanak egitea. Bada, lankidetzari horri esker egiten diren jarduerari dagokienez, nabarmentzekoak dira boluntariotzari azokak, sentsibilizazio kanpainak eta erakundeekin lankidetzari Gipuzkoan hautazko kredituak aitortzeko.

Sartu programa - Araba - UPV/EHU (Araba)

UPV/EHUK 2017an ezarri zuen lankidetzari programa bat Arabako SARTU-Araba boluntariotzari agentziarekin (gaur egun, BATEKIN), Gizalde - UPV/EHU programari jarraikiz, sentsibilizazio jarduerak egiteko Arabako Campuseko unibertsitate ikastegietan. Lankidetzari honi esker egiten diren jarduerari dagokienez, nabarmentzekoak dira boluntariotzari azokak, sentsibilizazio kanpainak eta erakundeekin lankidetzari Araban hautazko kredituak aitortzeko.

Unikide, Gizalde eta Sartu Araba programen jardunlerro partekatuak dira:

- informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa
- boluntariotzari sustatzeko jarduerak
- UPV/EHUren kooperazioa gizarte erakundeekin
- baliabide teknikoaren mailegua

Jarduera horien helburua da partaidetzaren eta solidaritatearen kultura eta baloreak aldarrikatzea eta hedatzea, eta boluntariotzaren sustapen zerbiztu etengabea egitea.

2017/2018 ikasturtean bestelako elkarlanak egin dira honako ekimen hauek gauzatzeko:

- **Verano solidario - BOLUNTA esperientzia mahaia** Informazio hitzaldia boluntariotzari kanpainari buruz, udan zehar, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko ikasleentzat, Boluntak irakatsita. Hitzaldia bibliotekaren eraikinean eman zen, 2018ko apirilaren 11n.
- **Deialdia: 4 laguntza, Jornadas de Voluntariado Ambiental jardunaldian parte hartzeko. Antolatzailea: Red Interuniversitaria de Voluntariado**

Ambiental (RIVA) sarea. Jardunaldiak CRUEko partaidetzako eta boluntariotzako lan taldeak antolatu zituen, Guadarrama mendizerrako parke nazionalaren ingurumena eta horren eragin sozioekonomikoaren peko eremua ezagutarazteko. Halaber, eztabaidatu egin zen: espazio natural horrek dakartzan onurez, bizi diren arazoek eta ingurugiro horretan bioaniztasuna sortzen duten ohitura tradizionalak zaintzeko, publikoki erabiltzeko eta irauteko irtenbideez. 2018ko maiatzaren 25ean, 26an eta 27an egin ziren, eta bi ingurumen hezitzailek dinamizatu zituzten, Alcalá de Henaresko Unibertsitateko langileekin batera. UPV/EHUri dagokionez, 4 pertsona bertaratu ziren: 2 ikasle (emakumeak), 1 ikasle (gizona) eta 1 irakasle (gizona), Zientzia eta Teknologia, eta Farmazia fakultateetakoak.

- **¡Suma kilómetros sostenibles en tu universidad! - Cliclogreen.** 2018ko apirilean egin zen Ciclogreen Fundazioaren kanpaina baten deialdia, "Reto 30 días en bici" erronkan parte hartzeko eta kilometro iraunkorrei lotutako sariak lortu ahal izateko. Kanpainaren helburua izan zen bizikletaren erabilera sustatzea eguneroko bizimoduan unibertsitateko kideen artean.

Parte hartu zuten 16 unibertsitateetatik UPV/EHU zortzigarren geratu zen, bizikletaz 1.838 kilometroko ibilbidearekin. Guztira, parte hartu zuten unibertsitate guztien artean, 38.520 ibili ziren: ekimenari esker, 9.630 kilogramo CO₂ aurrezteak lortu zen.

- **Hozkailu solidarioa - GBGE- Leioako Ostalaritza Eskola.** 2016ko urtarrilean, UPV/EHUK martxan jarri zuen, Leioako Ostalaritza Eskolarekin eta Galdakaoko Boluntarioen Giza Elkartarekin (GBGE) lankidetzan, "Hozkailu solidarioa" ekimena. Proiektu horren helburua da unibertsitateko jantokiko elikagaien zarrastelkeriaren aurka borrokatzea eta sortutako hondakin organikoen kopurua murriztea.

Bi urtez funtzionatu ondoren (hozkailua irekita egon da 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera, eskolak zeuden bitartean), balantzea oso positiboa izan da: 10 eta 20 anoa artean banatzen dira egunero.

Hozkailu solidarioa Ostalaritza Eskolako irakasleen zein ikasle boluntarioen ahaleginari esker dabil; izan ere, horiek arduratzen dira, egunero, elikagaiak berritzeaz eta hozkailua egoera higieniko onetan mantentzeaz.

4. ESKER ONA

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak eskerrik zintzoenak adierazi nahi dizkie eskuzabaltasun osoz beren denboraren zati bat memoria honetan aurkeztutako jarduerak antolatzen igaro duten pertsonari; izan ere, lan hori egiteke, ezinezkoa zitekeen jarduerok gauzatzea.

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Mila esker guztioi.

1. ERANSKINA: ikasleak boluntario aritu diren erakundeak (2017/2018 ikasturtea)

- ADSIS
- AECC
- AEMAR
- AFRIKHOPE
- AI LAKET!!
- ALBOAN
- AMPA ANGEL GNIVET ELKAR EKIN
- APDEMA
- ARGIBE
- MARISTAS ZABALIK ESKUAK KULTUR ELKARTEA
- A TOPE AISIALDI ELKARTEA
- NUESTRO KLUB AISIALDI ELKARTEA
- ASPACE
- ASTIBILTOKIA
- ATERPE BERRI ESKAUT TALDEA
- ATZEGI
- AURRERANTZ
- AUSARTZEN
- BELATZAK ESKAUT TALDEA
- BERAKAH
- BERRI BIDE ESKAUT TALDEA
- BIDE BIDEAN VITORIA
- CALCUTA ONDOAN
- CARITAS
- CENTR4
- GURUTZE GORRIA
- DYA
- ELIZALDE ESKAUT TALDEA
- ERRESPEUZZ
- ETORKINTZA
- ETORKIZUNA GEROA ESKAUT TALDEA
- FUNDACIÓN ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- GOYENECHÉ FUNDAZIOA (DONOSTIA)
- ITAKA ESKOLAPIOS FUNDAZIOA
- SAIATU FUNDAZIOA
- SINDROME DOWN FUNDAZIOA
- G.T.L. TXIMISTA
- GAUTENA
- GAZTELEKU
- GASTEUROPE
- GOIZALDE ESKAUT TALDEA
- GORABIDE
- SAN VIATOR ESKAUT TALDEA
- ATERPE BERRI ESKAUT TALDEA
- GURE TALDE
- HAZI ETA IKASI
- HERMANAS HOSPITALARIAS
- AITA MENNI OSPITALEA



- IÑURRI ESKAUT TALDEA
- IZARTXO BILBAO MADARIAGA AISIALDIA
- KIMA BERDEA
- MISIONES DIOCESANAS VASCAS
- OXFAM
- PLURAL ANITZAK
- ORDIZIAKO BABES ZIBILA
- PROVDE PROEGA
- SAN VIATOR ESKAUT TALDEA
- SAVE THE CHILDREN
- SORTARAZI
- SOS ARRAZAKERIA
- URBEGI BIZIA ESKAUT TALDEA

2. ERANSKINA: Boluntariotzaren III. Azokan parte hartu duten erakundeak

ARABAKO CAMPUSA	BIZKAIKO CAMPUSA	GIPUZKOAKO CAMPUSA
AFA ARABA	ACABE	ADINKIDE-AMIGOS DE LOS MAYORES FUNDAZIOA
ACCEM	ACOMPAÑA LAGUNTZEN	AFAGI
AECC	ADSI FUNDAZIOA	ASPACE
AFROAMERICA	AECC	ATECE
AGLE	ALCER	CARITAS GIPUZKOA
APDEMA	AMASSUNU	DYA GIPUZKOA
ARESBI	AMNISTIA INTERNAZIONALA	GEHITU
ASAFES	APNABI	GIZALDE
ASAJER	APRENDETEA	GKEF-GIPUZKOAKO KIROL EGOKITU FEDERAZIOA
ASASAM	ARGIBE	GURUTZE GORRIA
ASOCIACIÓN DE INTEGRACIÓN CULTURAL Y DE COOPERACIÓN HISPANOSUDAMERICANA "BERRI-ÑANN" ELKARTEA	ASEBI	HAURRALDE FUNDAZIOA
ASPACE	ASPANOVAS	HAZI ETA IKASI
ASPASOR	AVIFES	HURKOA
ATECE	BIDESARI	INTERRED EUSKAL HERRIA
ELIKAGAIEN BANKUA	BOLUNTA	IZAN FUNDAZIOA
BIDE BIDEAN	C.P. ARTATSE	JATORKIN
C.P.N. AZTERLARIAK TIEMPO LIBRE	CARITAS BILBAO	KAEBNAI DIRECT EUROPE DONOSTIA
CEAR	GURUTZE GORRIA BIZKAIA	MUNDUKO BEGIAK
GURUTZE GORRIA	DISLEBI	NAGUSILAN
DOWN ARABA	DYA	SOS ARRAZAKERIA
FEDER	EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA	SURFRIDER
FEVAPAS	ESCUELA DE TL (EDE FUNDAZIOA)	
INSOLA	EUSKAL HERRIKO ESKAUTAK	
ITXAROPENA	FEDER (EAEKO ORDEZKARITZA)	
KUENTAME	ELLACURIA FUNDAZIOA	
MEDICUS MUNDI	ETORKINTZA FUNDAZIOA	
MUJERES EN DIVERSIDAD	FAIR SATURDAY FUNDAZIOA	
RADIX;2	GIZAKIA FUNDAZIOA	
SAHARA ELKARTEA	INTEGRANDO FUNDAZIOA	
SECOT	ITAKA FUNDAZIOA	
TALUR	JUAN CIUDAD FUNDAZIOA (SAN JUAN DE DIOS OSPITALEA)	
	MIRANDA FUNDAZIOA	
	ONCE FUNDAZIOA	
	EAEKO SINDROME DE DOWN FUNDAZIOA	
	VICENTE FERRER FUNDAZIOA	
	FUTUBIDE	
	GOIZTIRI	
	GORABIDE	
	ICLI	
	MUGARIK GABEKO INGENIARIAK	
	INTERED	



	IZANGAI	
	KALE DOR KAVIKO	
	KCD-ONGD	
	LEVAR	
	LOIZAGA KULTUR ELKARTEA	
	MANOS UNIDAS	
	MÉDICOS DEL MUNDO- MUNDUKO MEDIKUAK	
	MEDICUS MUDI BIZKAIA	
	MÉDICOS SIN FRONTERAS	
	MUNDUKO BEGIAK – FUNDACION OJOS DEL MUNDO FUNDAZIOA	
	GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA (EHU)	
	OXFAM INTERMON	
	RECICLANET	
	ITXAROPENAREN TELEFONOA	
	TIERRA SIN HOMBRES	
	UNRWA EUSKADI	
	URIBE KOSTA	
	YAN-LUR MADRE TIERRA	

3. ERANSKINA: UPV/EHUren prentsa oharrak

2018/07/13

[Las personas refugiadas matriculadas en la UPV/EHU están exentas del pago de tasas](#)

Albiste. Campusa

2018/05/24

[Más de mil estudiantes de la UPV/EHU finalizan sus estudios cooperando](#)

Albiste. Campusa

2018/05/21

[«No dejes comida en el plato, ¡llévatela!»](#)

Erreportaje. Campusa

2017/10/19

[Cien entidades sociales participan en la Feria del Voluntariado de la UPV/EHU](#)

Erreportaje. Campusa

2017/09/15

[La UPV/EHU se une a la Red Europea por la Movilidad Sostenible en Universidades](#)

Albiste. Campusa

2017/07/28

[14 estudiantes refugiados prosiguen sus estudios en la UPV/EHU. La universidad les ofrece acogida y atención personal por medio de la Oficina de Cooperación al Desarrollo, para su integración en la comunidad universitaria](#)

Erreportaje. Campusa